

BALEIKE

192. ZENBAKIA. EURO BAT
2010eko URRIA

www.baleike.com



Telmo Deun
entrenatzeari
utzi dio Luis
Mari Olasagasti
'Luxia'-k, 30 urte
eta gero.

“30 URTE
NAHIKOA DIRA”



Ardantzabidea
Sustatzailearen zuzeneko salmenta



Informazioa eta salmenta

Insausti Industrialdea z.g.
T. 943 85 02 22
M. 906 30 63 75
20720 AZKOIMA - Gipuzkoa
Argibide gehiago
gure webgunean
www.gruposonilor.com

ERROTA



OPIL OKINDEGIÀ

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

BALEIKE 192

AZALA g. zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpuru, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta

Gorka Zabaleta

Disenua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

9

baleike +

'LUXIA'-RI ELKARRIZKETA

4

hitz-tantak

JUAN JOXE GOIKOETXEA

7

bertso xorta

JOKIN GIJARRO

19

kultura

ZINEMALDIAN

TTAUP TTAUP

23

erreportajea

UDABERRIA ORANEN

29

agenda

URRIA-AZAROA

30

mikroipuina

GAIZTOAREN ZALDIA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zumaia Udalak



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa

“Ederra izaten da gu korroan jarri eta jendea gustura ikustea”

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Zumaiako txaranga kalean denean, askoren begiak berarengana joaten dira. Bere musika tresna handia agertzen da goi-goian, beste guztien gainetik. 25 urte daramatza herritarrak eta beste herrietakoak alaitzen. Ez omen du lehengo sasoirik, baina segitzeko prest da.



Egin dezagun 25 urte atzera. Berriz sortuko al zenukete Zumai txaranga?

Garai hartako edadea edukiz gero, jakina baietz. Ez zaigu damutu sortzea, ez.

Zergatik sortu zenuten?

Bueno, Musika Banda zegoen, eta bertako talde bat bildu ginen Aita Mari kafetegian. Han erabaki genuen sortzea. Aurretik baziren taldeak herrian: Txilbor, Izustarri, Itxas Gain... Tarteka ateratzen ziren, eta guk erabaki genuen segida ematea.

Denak zumaiarrak al zineten?

Ia denak bai. Pare bat kanpotar zeuden, danborradetan jotzeko jende kopuru handiagoa eskatzen dutelako.

Zenbat zineten hasiera hartan?

Hamabost bat lagun.

Zumai izena jartzea erabaki zenuten. Izan al zen beste proposamenik?

Ez. Pasaian bazen Pasai Txaranga, eta guk Zumai jartzea erabaki genuen.

Gogoan al duzu

aurreneko aktuaizoa?

Ez naiz akordatzen, baina Zumaian bertan izango zen, igual, sanpedrotan edo.

Txarangak musika jo behar du ala aktuatu ere bai?

Errespetuz, musika jo behar du, baina alaitasunez ere bai. Bestela, Musika Banda izango litzateke.

Zer duzu nahiago, txarangan ala Musika Bandan jo?

Musika Bandan nahiago.

Kontatu al dituzu zenbat aktuazio egin dituzuen 25 urteotan?

Ufff... ezta, ezta arrastorik ere!! Baina asko.

Danborradak ugari, ezta?

Bai. Donostian toki askotan jo izan dugu denbora gutxian, pare bat danborradarekin. Gauean, goizeko hiruretan iristen ginen etxera, eta goizeko erreleboan tokatzen bazen, lanera lo gutxi eginda! Arrisksutua da hori, lanerako gorputza ez

“Errespetuz, musika jo behar du txarangak, baina alaitasunez”

dagoelako bete-betea.

Urrutirago ere ibiliak zarete. Miranda de Ebroko bueltak gustukoak omen dituzu.

18 urtean joan gara hara. Etorri ziren hangoak 25. urteurreneko ospakizunetara, eta “mundial ibili gara!” esan zidaten. Oso harreman ona dauka hango peña batekin, eta berriz joateko eskatu digute. Niri esaten didate hau: “Hau da Mirandan gehien sufritzen duena. Zortzi kilometroko aldapan gora musika tresna astun hori bizkarrean hartuta!”.

Bidarrain ere gozatu omen duzu.



Izena: Juan Joxe Goikoetxea
Jaioterria: Zumaia
Jaioteguna: 1942ko martxoaren 11n
Lanbidea: Fundizioko langilea, eta orain jubilatua
Gustuko pieza bat: 'Caballo prieto'
Gustatzen ez zaizun bat: 'Diana carnaval'
Herri bat musika jotzeko: Zumaia, jakina, eta Getaria ere bai. Beste herriak gutxiesteko asmorik gabe
Berriz inoiz musika joko ez zenukeen toki bat: Alferrik da ezetz esatea, joan egin behar da
Beste musika tresna bat gustukoa: Tronboia, eta batez ere, bonbardinoa

Bai, baina zibilizatu gabeko jendea dago han, menditik jaitsitako horiek arriskutsuak dira.

Zure gustuko beste bidaiarik ez didate aipatu, baina egongo da besteren bat, ezta?

Santiago Compostelakoa. Katedralaren barruan jo genuen. Palentziako herri batean ere jo genuen, Fromistan, San Telmorekin lotura duen herri horretan. Hain urruti ez dago, baina Aizarnazabalgo buelta ere ez daukat ahazteko, duela egun gutxikoa. Omenaldia egin ziguten 25 urte betetzeagatik.

Txarangan jotzen duenak musika jotzen egin behar al du parranda derrigorrean?

Jotzen ari garela ere ematen diogu edariari. Bukaeran ere bai, jakina. Batzuetan guk geuk ordainduta, eta besteetan, gonbidatuta.

Musikariengatik beti esan izan da zurruteroa eta emakumezalea dela.

Mitoea ez al da hori?

Denetik dago musikarion artean, beste arlo guztietan bezala.

Zenbat gaupasa egin dituzu txarangarekin?
 Batzuk bai.

Bestela baino gehiago?
 Bai, bestela asko ez.

Zure musika tresnaren izena ez da erraz hartzen gogoan.

Elikoia. Amerikarrena da. Lehen baxua erabiltzen zen; gero, tuba. Elikoia atzean joaten da, dotore itxura ematen du.

Zergatik aukeratu zenuen elikoia?

Luis Mari anaiak esan zidan behin elikoia zergatik ez genuen ekartzen. Erabaki genuen ekartzea, eta jendeari atentzioa ematen dio, goraka ateratzen delako. Egokia da argazkiak ateratzeko.

Zenbat pisatzen du?

Bederatzi kilo eta zazpiehun gramo. Behin eztabaida

izan genuen hamar kilo bazela eta ez zela, eta beheko botikan pisatu genuen. Orain, nekatzen ari naizen neurrian, gero eta astunagoa iruditzen zait.

Arazo fisikorik sortu al dizu ia hamar kiloko tramankuluak?

Sorbaldan babesgarria jartzen dut, mina ematen didalako, bestela.

Noiz hasi zinen musikan?

Juanito Goikoetxearekin-eta. Hamar-hamaika urte izango nituen.

Nolatan?

Familia osoan zegoen sartuta musika, eta lehengo aitona zahar haiekin hasi nintzen.

Orduan ez zen izango musika eskolarik. Nola ikasi zenuen?

Aitarekin edo Juanito Goikoetxearekin. Haiengana jotzen nuen ikasteko. Hobe bai musika eskola egon balitz!

Zer sentitzen duzu zuek musika jotzen ari zareten bitartean jendeak kasurik egiten ez badizue?

Bueno, pena. Hainbeste sakrifizio dago atzean. Ederra izaten da gu korroan jarri eta jendea gustura ikustea. "Pieza gehiago jo behar dizkiagu", esaten diogu elkarri.

Sekretu txiki bat kontatuko dizut: umea nintzela, zu tramankulu horrekin ikusita, barrez lehertzen hasten nintzen.

Gehiagori ere eragiten zien barrea. Jende askori iruditzen zaio nik ahoarekin egiten dudana pruf-pruf-pruf hori edozeinek egin dezakeela. Ez da hain erraza! Eibarko zuzendari batek, Jacintok, haserre bizian esaten zuen: "Jendea ezjakina da!". Elikoia eritimoa jarri behar du, azkartu edo mantsotu.

Txarangako jefea zara orduan!

Bai zera, bai zera! ■

7
MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izoituak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3

Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumaia@terra.es

LIBRURERIA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com

ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157

anasetxozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6, behea
tel. 943 117 406

OKINDEGIA
Arkiepe

Neopola, 2 - tel. 943 861 521
ZUMAIA

OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadi.net

Golbez: 11-13 / Aratsak: 16-19:30 / Asteleroen golbez eta larunbatean bita
Larrialdietarako: 605 728 707 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA

ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafeetgia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Luzea izan da!

Doinua: "Aizak hi mutil mainontzi."



1.

Lasaitzea daukat xede
oporraldiak mesede
horregatikan Parisa goaz
neska ta ni trebe
patroitzak haxe du bere
popan daukala botere
tren honek duen azken bagoian
nihoa gaur ere.

3.

Ez genun falta ez lanik
ta gutxiago kemenik
neguan lana bikain eginda
udaran jadanik
ez zetorren garaipenik
ez zetorren postu onik
ez nun espero itsaso hori
hain gazia zenik.

2.

Denboraldia buruan
hasia iaz neguan
baja ugari izan genitun
geunden apuruan
jendean bila orduan
ekin genun momentuan
esperantzaren printza txiki bat
geneukan barruan.

4.

Nihoalarik trenean
egun haiek oroitzean
aitortu nahi det play off-arena
daukat bihotzean
herritar asko gainean
eta mailaz mantentzean
eskerrik asko Telmo Deuneko
denon izenean!



EGOKI



*Erloju
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

ekin
elektronika, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

 

Endaleta Zumaiá

Erribera, 8 tel. 943 861 694



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA

OPIL-OKINDEGIA

SANILLO AZOZA, 32
20750 ZUMAIÁ
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

mugikorra eta ADSL-a



vodafone

ERTZ informatika
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIÁ
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopata, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutas), Kirolentzako, Lesatzaleak, Estresaren, Antzizetaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoaren... kontrakoak). Akupuntura: horietatik eta horietatik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIÁ

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

GOFI
Gazte
Surf

Baltasar Etxabe, z.g.
tel. 943 860 959

SPOT
SURF
DENDA

Ortega y Gasset, 2
tel. 943 860 768

OUTLET

%50
%60
%70

Aita Mari
(postetxearen aurrean)

Cure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibaitain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

riazcue@euskalnet.net

LUIS MARI OLASAGASTI LUXIA

Arraun elkarteko entrenatzaile ohia

“LAGUNTZERA BAKARRIK ETORRI NINTZEN”

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Duela 30 urte, Oriotik arraunlari gazte bat etorri zen, entrenatzaile lanak egiteko. Aurten arte egin du lan hori, eta uzteko garaia dela iritzi dio. Hasiera hark eta amaiera honek badute loturarik: Zumaia onenen pare edo gainetik jarri zuen orduan, eta onenen artean lagata utzi dio Telmo Deuneko entrenatzaile izateari.





Datorren neguan, ibaian gora eta behera ibiliko da traineru gorria. Alboan izango du motordun ontzia. Urteroko irudiak. Baina izango da ezohiko argazkia ateratzeko aukera: Luis Mari Olasagasti *Luxia* (Orio, 1954) ez da egongo. Beste entrenatzaile bat ariko da. 30 urtez lan horretan jardun eta gero, uztea erabaki du Luxiak. Berarekin elkartu, eta urte horien guztien errepasoa egin dugu. Badu zer kontatua.

Nola sortu zitzaizun Zumaiako entrenatzaile izateko aukera?

Neronek esateko ere ez dakit ondo nola izan zen. Tito Mancillak deitu zidan.. Nirekin Orion arraunean ibilia zen. Laguntzera etorriko nintzen proposatu zidan. Nolako koadrilla zegoen ikusi genuen, gustatu eta hementxe segitu nuen.

Zer garaitan zen?

1980ko neguan.

Aurretik Orioko arraunlari izan zinen. Zenbat urtez?

Kadeteetan eta jubeniletan ibili ondoren, 18 urte bete nitue-nean 1973an, seniorretara pasatu nintzen, eta 1980ra arte ibili nintzen. Zortzi urtez.

Zergatik esan zenion baietz Zumaiaren proposamenari?

Hurrengo urtean, 1981ean, Orion, uste dut ez zela trainerurik atera. Zumaiakoa apustua zela pentsatu nuen, eta probatza etorri nintzen.

Zer esan zizuten Orion Zumaiara zentozela esan zenie-nean?

Bueno, orduan ez zegoen inori esan beharrik beste nonbaite-ra joan behar zenuela. Fitxaketa konturik-eta ez zen. Klubak ez zidan oztoporik jarri. Gainera, laguntzera bakarrik etorri

nintzen, eta geroko kontua izan zen hemen gelditzekoa.

Zerbait eskaini al zizun Oriok han gelditzeko?

Ez, ez. Orduan ez zen dirurik arraunean.

“Oriotar bat Zumaiara!”, pentsatuko zuten, akaso, zumaiar batzuek, bi herrien arteko pikea dela-eta.

Bat edo bestek esango zuen, igual. Bueno, Orion ere esan izan zidaten antzekorik: “Hik zer uste duk, Zumaiak Oriori irabaziko diola?”. Garai hartan, irabazi genien behin baino gehiagotan.

Zumaiaren laguntzeko bakarrik eskatu zizuten?

Bueno, momentuan bai. Gauza aurrera zihoan bezala, ikusten genuen zerbait polita egin zitekeela, oso koadrilla ona zegoe-lako. Gogoarekin hasi ginen, bateletan eta trainerilletan estropada batzuk irabazi genituen, eta koadrillarekin

lagunarte handia ere egin genuen; hortik aurrerakoa pixkanaka-pixkanaka etorri da.

Arraunlari batzuk baino gazteagoa ere bazinen zu.

Hori da. 26 urte nituen etorri nintzenen, 27 egiteko. Zaharrago batzuk baziren, gazteagoak ere bai: Etxabe, Txatarro, Lokatza... Oso gazteak ziren horiek.

Nolako harrera egin zizuten arraunlariek?

Bueno, kanpoko jendea ere ibilia zen hemen. Antonio Oli-

“Orio aldeko esperientzia ekarri nuen, eta hango prestakuntza. Pesak egiten hasi ginen, adibidez”

den oriotarra egon zen hemen, 1979an uste dut, Joxeba *Artiak* utzi zuenean. Emaztearen osaba nuen, Lasarteko Michelinen patroibilia.

Koadrilla ona ez bazen egon Zumaian, geldituko al zinen?

Zaila da hori jakitea. Ondo hartu ninduten, lagunak ere egin ginen, emaitza onak lortzen hasi ginen; beraiek animatu egin ziren, eta ni ere bai. Hurrengo denboraldian jarraitzeko eskaini zidan Klubak, eta baietz esan nien.

Zer aldatu zenuen Zumaia etorri eta segituan?

Gauza handirik ez. Orio aldeko esperientzia ekarri nuen, eta hango prestakuntza. Neguko entrenamenduak dezente aldatu genituen. Pesak egiten hasi ginen, adibidez.

Nolako lana egiten zen hemen zu etorri aurretik?

Uste dut gu ibiltzen ginen bezala jarduten zutela hemen. Oriora prestatzaile fisiko frantziar bat etorri zen arte, negua aparte uzten genuen. Martxoan hasten ginen lehen, eta Zumaian ere hala zen. Prestakuntza eredu berri harekin, azaroan hasi ginen entrenatzen, eta ezohikoa izan zen.

Zein izan zenuen maisu?

Altzerri zaharra eta Patxi Sarasua. Prestakuntza aldetik, berriz, lehen aipatu dudana frantziarra.

Hura izan al zen neguan entrenatzen hasi behar zela esan zuena?

Bai. Eta serieak sartzen hasi zen. Ura nola edan behar genuen ere erakutsi zigun. Lehen ez ziguten uzten ura edaten, txarra zela esaten ziguten.

Ura ezin zenutela edan?

Debekatuta zegoen. Ez ziguten uzten.

Zu etorri zinen garaian, zer zen arrauna zumaiarren-tzat?

Ez dakit zer pentsamendutan ibiltzen ziren, baina hemen beti egon da arraunerako tradizioa. Joxeba *Artiak* sustatu zuen asko, eta gazte koadrilla handia sartu zuen arraunean. Kostako da berriz hainbeste gazte jende arraunean ikustea!

Emaitza onak aipatu dituzu, eta 1984ko urtea izan zen onena.

Orduan izan genituen onenak, bai. Baina urte hura bezalako onak izan genituen, nahiz eta hain emaitza bikainak lortu ez. 1981ean, esaterako, hiru segundogatik ez genuen irabazi Kontxako Bandera. Esperientzia faltagatik galdu genuen orduan. 1983koa ere gogoan daukat. Istiluak izan ziren Orio tartean zela, eta ezin izan zen ekarri bandera. 1984an sekulako gosea genuen Kontxa irabazteko, eta lortu zen. Gero, arraunlari batzuek utzi egin zuten, eta pena da, arraunlari multzo hark hamarkada osoa egin izan balu, bandera mordoa irabazi ahal izango genuelako.

Zenbat saiakera egin zenituen koadrilla hark arrauna utzi ez zezan?

“Arraunlari multzo hark hamarkada osoa egin izan balu, bandera mordoa irabazi ahal izango genuen”

Asko. Baina orduan ez zen dirurik mugitzen. Urte asko egin zituzten, gazte-gaztetatik hasi zirelako. Helburua Kontxa irabaztea zen, eta hori lortu zutenean, aspertu egin ziren. Orduan ez zen ohikoa 30-32 urteko arraunlariak ikustea.

1983ko Kontxa hura aipatu duzu. Orio alde batean zegoen, eta Kaiku, Zumaia eta beste asko beste aldean. Zu oriotarra izanik, egoera zaila izan al zen zurretzat?

Deseroso egon nintzen. Orduan, jende asko Jose Luis Kortari bota zizkion kulpak [Kaikuko entrenatzailea zen], baina badakit bera ez zela errudun izan. Denok erabaki genuen hitz egitea. Pedreña etorri zitzaigun zerbait egiteko eskatzera, kanpoan gelditu zelako. Fortuna ere kanpoan zen, Orio sartu zutelako epaileek, nahiz eta sailkapen estropadan sartu ez.

Hitz egin genuen, eta antolatzaileei eskatu genien hirugarren txanda botatzeko, bandera irabazteko lehiatik kanpo bazen ere, kanpoan utzi zituztenak ere lehiatu ahal izateko. Baina ez zuten onartu, eta orduan erabaki zen boikota egitea. Bakoitzak nahi duen bezala kontatzen du gertatua, baina guk badakigu zer gertatu zen.

Esan duzu entrenatzeko metodologia asko aldatu dela. Atzera begira jartzen zarenean, pentsatu al duzu inoiz “zenbat astakeria egin ditudan!”.

Orduan ergometroak ere bazeuden, baina ez oraingoak bezalakoak, oso zehatzak. Analitikak ez ziren egiten, eta arraunlari bati jai eman beharrean, sekulako entrenamendua eginaraziko genion, agian. Alde horretatik, astakeriak seguru egin genituela. Orain, analitikarekin, badakigu arraunlari bakoitzari zer entrenamendu komeni zaion.

80ko hamarkada loriatsu haren ondoren, tarte batean utzi egin zenuen arrauna. Zergatik?



Idoia
Moda denda
Aurregaitan espezializaturik

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
idoiazamaia@gmail.com

hinta

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

IRIONDO JATETXEA

Txikierdi
auzoa
Tel.
943861390
675715017

Gure espezialitatea:
arrainak eta baragia parrillan

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoia

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

**ITSASKI
SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, teilak, armairu errotaturak...

Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI

943 862 083

KABI Paskia Etxezarreta, 15
943 117 427

TABERNA

JUARI
jatekxoa

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basendi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTH-rekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

Larraitz ile-apaindegia
gizon emakumezkoentzat

Basendi auzategia 5 behea
Zumaia
tel.: 943 14 30 41

mala

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 276

“Sekulako ilusioa egin zidan 1984ko Kontxako Bandera irabazteak”

Entrenador de Zumaia, ha esperado con paciencia el momento del triunfo

Luxia: “Por fin la Concha es nuestra”

Luxia Zumaiaiko herriaren historian geldituko da betiko, Kontxako Bandera lehen aldiz irabazi zuen taldearen entrenatzaile zelako. 1984an izan zen. Hiru urte geroago beste bat irabazi zuen. Oriotarra izanik, aparteko harremana dauka Donostiako estropadarekin.

1984koa apartekoa izan zen herriarentzat. Zu ez zara zumaiaarra, baina barru-barrutik bizi izan zenuen hura.

Bai. Entrenatzaile bezala nire aurreneko Kontxako garaipena zen. Oritzapen onak dauzkatz, sekulako ilusioa egin zidan. Beste oritzapen batzuk ere ekarri dizkit estropada horrek, eta 1984ko hura dena berriz bizitzea bezalakoa izan zen.

Nola bizi izan zuen herriak?

Herriak dena eman zuen. Beti izan da horrela Kontxan. Ondo dabilenean talde bat, herri osoa mugitzen da, baina Zumaiaarena berezia da: badu zerbait Kontxako estropadarekin.

Klaudio Etxeberria Gorria. Zer datorkizu burura izen hori entzunda?

Bueno, hura Zumaiaara ekartzeko arraunlariak eskatu zidaten. Joseba Aristi zen patroia, baina koadrillak ez zeukan konfiantza handirik berarekin. Arraunlariak esan zidaten arraunean jarraituko zutela, baina patroia bat ekarri beharra zegoela. Esan nien Gorria bazela Orion. Orduan ez zen senidea gerora koinatua izan zen hura. Etorri zen, eta hiruzpalau urte egin zituen hemen. Utzita zegoen bere bila joan nintzenean.

Ni umea nintzen orduan, eta zaharra ikusten nuen patroia. Hain zaharra al zen?

Ez dakit zenbat urte izango zituen, baina bazuen edade pixka bat, bai. Lehen ohikoa zen patroiak zaharrak izatea. Dena beraiek egiten zuten: ontzia eramane, entrenamenduak prestatu, entrenadorea ere bazen... Orain, arraunlari bat gehiago da.

Zer eman zion Gorriak koadrilla hari?

Esperientzia. Oso patroia ona zen, urteetan ibilia. Konfiantza eman zion taldeari.



Sandaliaren bat edo beste ere botata omen zien arraunlariak estropadaren batean.

Seguru baietz. Estropada batzuk beragatik irabazi genituen, eta galdu ere bai batzuk, bere erruagatik. Baina hori niri ere gertatu izan zait.

1984ko ongietorria ikusgarria izan zen. Ez zara halakoen oso zalea, baina zer duzu gogoan?

Ondo gogoan daukat, oso polita izan zen. Gogoratzen naiz orduko alkatea, Kastor Agirrezabalaga, ontzi barruan genuela sartu ginela Donostiako arranplan.

Betiko geldituko zara Zumaiaiko historian. Kontxa, Kontxa da.

Seguru asko bai, historian geldituko naiz. Hala gelditu nahi nuke, behintzat. Maitatua sentitzen naiz Zumaian, eta nahi nuke herriaren oroitzapenean gelditzea.

Zer da Kontxako Bandera?

Ez dakit zer den azaltzen. Estropada denak irabazita ere, Kontxakoa irabazi ez baduzu, orbana hor gelditzen zaizu. Jendeak egiten dizun lehen galdera hau da: “Zenbat Kontxa daukazu irabazita?”. Arraunlari batentzat da kirolari batentzat Olinpiar Jokoetara joatea bezalakoa. Eta irabazten bada, oraindik eta gehiago.

Oriotarrek zergatik bizi duzue hain berezi?

Historiatik izango da. Urte askoan irabazi dugu. Baina arraunlari guztien da miresmena, ez oriotarrena bakarrik. Orion, denboraldi txarra egin baina Kontxa irabazten bada, sekulako denboraldia da; aldiz, Kontxa irabazi ez, eta bandera pila irabazten badira, ez da hain denboraldi ona.

Zumaiarekin irabazi izanak gogorarazi al zizkizun oriotar bezala bizi izandakoak?

Lehen ere irabazita neukan, bitan, arraunlari bezala. 1973an, lehen urtea nuen Orion, eta Kontxan lehia-tzea 18 urterekin, ametsa izan zen. Idoloak alboan neuzkan. Estropada asko irabazi genituen denboraldian zehar, eta Kontxa galdu egin genuen. Arraunlari bezala pena handienetakoa orduan hartu nuen. 1981ean, Zumaiarekin irabaztetik oso gertu gelditu ginen, hiru segundora, eta pena izan zen hura ere.



“Joxe Artia
sustatu zuen
asko, eta
gazte koadrilla
handia
sartu zuen
arraunean”

Urtebetean erdi utzita egon nintzen, baina ez dut gogoan zer urte zen. Garai ona pasatu genuen, eta aspertuta nengoen neurri batean. Pentsatu nuen urtebetean edo utzita gogoia etorriko zitzaidala berriz, eta bueno, gogoia etorri zen, eta orain arte.

Gogoagatik bakarrik itzuli zinen, edota askotan eskatu zizutelako?

Urte hartan bertan ere ez nintzen erabat utzita egon, tarteka azaltzen nintzen klubera. Gogoia, batetik, eta eskatu ere egin zidatelako, bueltatu egin nintzen.

Aro politaren ostean, beste urte batzuk etorri ziren: emaitzak ez ziren hain onak.

Orduan ez zen TKE Ligarik eta halakorik. Emaizta txukunak egiten genituen tarteka. Estropadetara antolatzaileek gonbidatzen zituzten traineruak, eta oso onak joaten baziren, ez zen au-

kera handirik egoten postu onik egiteko; ez baziren joaten, bai. **Urte ez hain on haietako arraunlari batek hau esan zidan behin: “Luxiak zaukak meritua. Gu bezalako aldrebes koadrillarekin egunero-egunero etortzen duk”.**

Aldrebes koadrilla? Igual ni izango nintzen aldrebesena! Gustura ibili izan naiz urte guztietan.

Zerk motibatzen zintuen orduan segitzeko?

Urte guztietan izan ditugu emaitza txukunak. Traineruan on-onak ez baziren ere, trainerilletan txapelketak irabazi genituen; Gipuzkoako lau-bost urte jarraian irabazi genuen. Gero, emaitzetatik haratago, lagunartea zegoen, eta horrek ere ematen du indarra segitzeko.

Zer izan da zailena urte hauetan guztietan?

Denboraldi batetik besterako tartea; batez ere, azken urteetan. Arraunlariei deika ibili beharra, eta entzun beharra beste batek deitu diola, ez dakit zeinen eskaintza duela, oso gogorra egin zait. Zumaia etortzeko arraunlariak ekartzea ere ez da erraza izan. Zaila dago TKE Liga, maila altua behar da, eta hona kanpotik jendea ekartzea ez da erraza; zer eskaini behar nien, ba, kanpokoei?

TKE aipatu duzula, gatozen azken bost urteetara. 2005ean igo zen Zumaia, dirua tarteko. Fitxaketak egin zenituzten. Nola hartu zenuten erabaki hori?

Bueno, TKEra igotzea erabaki genuen. Babesleak lortzeko aukera bazegoen, eta horrela osatu genuen koadrilla. Bati deitu eta besteari deitu, trainerua osatu zen.

Urte hartan erabat gozatu al zenuen?

Ez. Lehen aldia zen kanpokoak ekartzen genituela. Arraunketa ezberdineko jendea bildu zen, izaera ere ez genuen denok berdina, eta alde horretatik, deserosoa izan zen. Hala ere, ondo moldatu ginen.

“Ehiza kentzen badidate, falta sumatuko dut”

Luxia entzun eta arrauna burura etortzea bat izaten da. Baina kirol horretaz gain, beste zaletasun batzuk ere badauzka. Handiena, ehiza.

Udazkenean tiroak botatzea egokia izan al da arraun denboraldirako pilak kargatzeko?

Ba, egia esango dizut: ehizean lau bat egun igarotzen ditut, eta oportetean beste edonon hamabost egun pasatakoan baino gehiago deskonektatzen dut. Ez naiz gehiegi joaten. Badajozen (Espainia) daukagu kotoa hartuta, eta urtean zehar pare bat bidaia egiten ditugu hiru bat egunekoak. Ehiza ken-

duz gero, falta sumatuko nuke, bai.

Orain, denbora gehiago izango duzu joateko.

Ez pentsa. Urruti gelditzen zaigu, eta ez gara askotan joaten. Irrikaz nago kartutxoak kargatu eta bertan ibiltzeko.

Noiztik zara zalea?

Betidanik. Gure aita zena ere ehiztaria zen. Ortzaitan, gure auzoan, denak ziren ehiztariak. Plater jaurtiketan eta uso tiratzen ere ibiltzen ginen, baina ez naiz askotan ibili.

Zenbat bandera irabazi dituzu ehizean?

Nahi bezain ona ez naiz. Plater tiraketan batzuk irabazi nituen, Gipuzkoako Kopa ere irabazita dut. Baina

ehizerako praktikatzeari ibiltzen nintzen plater tiratzen eta.

Harrapatu duzun pieza ederrena? Basurdeetara ibiltzea ez zait gustatzen. Ordu asko egon behar dira geldirik. Eperretara joatea gustatzen zait.

Arrantzak ez al zaitu inoiz erakarriri?

Ez. Gainera, oso aspergarria iruditzen zait. Erreka bazterrean jaioa naiz, eta arrantzale asko ikusi ditut, baina amua jartzen ere ez dakit.

Beste zaletasunik ba al duzu?

Ez. Lagun artean afariak egiten eta musean jotzen oso gustura egoten naiz.

Orduko arraunlari batek esana da hau: “Banderak irabazi genituen, baina ez nuen gozatzten. Bagenekien helburua igotzea zela, eta play-offetan lortu behar genuen hori. Bukaeran gozatu nuen, aurretik gutxi”.

Igotzea nahi genuen, eta play-offetan jokatuko genituen gure aukera guztiak. Aurtengoaren antzekoa izan zen alde horretatik, bukaeran topera egon beharra zegoen. Tarteko emaitza batzuk engainagarriak izango ziren, akaso, baina helburua zein zen oso garbi genuen.

Bost urtean dabil Zumaia TKE Ligan, eta beti sailkapeneko behealdean. Zerbaiten esperantzan jarraitu al duzu urte hauetan?

Esperantza beti izaten da, eta hori gabe kirolak ez du ezer balio. Bagenekien ez zegoela emaitza handirik egiterik besteen aurrekontuak nolakoak ziren ikusita, eta arraunak fitxaketekin hartu zuen bidea kontuan izanda. Baina, bueno, urte hauetan segi izan dut herrian ondo tratatu nautelako, presiorik ez dudalako izan... Badakit beste klub batzuetan presio handia dagoela. Hemen ez.

Baina aurten kito esan duzu. Zergatik?

Alde batetik, 30 urte direlako Zumaian nagoela. Iaz ere pentsatu genuen uzteko garaia zela, baina azken unera arte ez dut erabaki. Uzteko garaia da dagoeneko. 30 urte nahikoa dira.

Betiko agurra al da?

Zaila da esatea. Zumaiaitik kanpo ez dut ikusten neure burua. Izan ditut beste klub batzuen eskaintzak urte hauetan, baina negozioa herrian daukat, eta hortik ateratzen dut bizimodua. Akaso, arraunetik bizi beharko banu, pentsatuko nuke. Aurten ere izan dut eskaintzaren bat edo beste, baina oso eskaintza erakargarria beharko luke izan ni Zumaiaitik mugitzeko.

Oriok deitzea al litzateke eskaintza erakargarria?

Izan nuen aukera bertara joateko bere garaian, Korta Castrora joan zenean. Buruari buelta batzuk eman nizkion, aukera ederra zen, baina familiarekin hitz egin eta gero, ez nituen gauzak garbi ikusi, eta hemen gelditu nintzen. Orion ni bezalako baten beharrik ez daukate. Hobeak daude, eta ez dut uste Oriora bueltatzeko biderik izango dudarik.

Zer eskaintza jaso dituzu urte hauetan?

Ez dira eskaintza zehatzak izan, nik neuk ez didalako aurrera segitzeko aukerarik eman. Deitu egin izan didate joango nintzatekeen galdezka.

30 urte hauetan mila egoera on bizi izan dituzu. Ba al duzu bat gogoan bereziki?

1984koa, urtea bezala hartuta. 1987ko Kontxa ere gogoan dut. Hiru urte lehenago, bagenekien irabazteko aukera gehien genituela, eta irabazi egin genuen. Baina 1987koa lehiatuagoa izan zen, eta ilusio gehiago egin zidan alde horretatik.

“Aurten ere izan dut eskaintzaren bat edo beste, baina oso erakargarria beharko luke”

“Dena eman dit Zumaia”



“TTAURTAIPIARRAUN KOLPEA” DOKUMENTALIKO FOTOGRAFIA

Laguntzera etorri eta bizitzaren erdia darama herrian. Asko estimatzen du Zumaia, eta maitatua sentitzen dela dio.

Duela 30 urte etorri zinenen, beste herri bat besterik ez zen izango Zumaia zuretzat. Orain zer da?

Orain ere herri bat da [barrezka]. Semeak hemengoak dira, nahiz eta Orion jaioak izan. Galdetzen badiezu nongoak diren esango dizute zumaiairak direla. Bizitzaren erdia hemen daramat, Oriotik etorri nintzenetik. Dena eman dit Zumaia, eta nik ez dakit hainbeste eman diodan. Bizitzeko bide bat eman dit, eta lehen esan dizudan bezala, maitatua sentitzen naiz.

Negozioa ixten duzunean, jubilazioa hartzean, hemen geldituko zara ala Oriora itzultzeko asmoa duzu?

Hemen geldituko naiz. Asmoa, behintzat, hori da. Oso gustura nago hemen.

Zer eman diozu Zumaiairi?

Beste batek esan beharko luke hori. Saiatu naiz arraunaren aldetik ahalik eta gehien ematen. Kolore hauek defendatzeko aukera egin nuen, eta ahalik eta ondoen egiten ahalegindu naiz. Hori da nik emandakoa.

Eta zer eman dizu Zumaiaik?

Emaitzak hain onak izan ez direnean ere, inork ez dit esan enbarazuan nagoela. Leku batean gustura egotea aukera eman dit.

Egoera txarren bat?

Mordoa pasatuko nituen, baina bat 1984koa, Euskadiko Trainerilla Txapelketakoa. Irabazi gabe genuen, baina ura hartu genuen beroketan. Ura ateratzera joan ginenean, irteera eman ziguten, eta istilua izan zen. Ez genuen ateratzerik izan. Sekulako disgustoa hartu nuen. 1983ko Kontxa hartan, epaileek izan zuten jarrera ere ez zitzaidan batere gustatu. Bestela, desilusioak asko izan ditugu. 1985ko Kontxan, adibidez. Irabazteko aukerak genituen, baina Santurtzik bi segundogatik hartu zigun aurrea, lehen txandan aterata.

Dena irabazi duzun ustea al daukazu?

Dena?

Bai, dena.

Inoiz ez dut pentsatu horretan. Estropada guztietara ilusio berarekin joan izan naiz.

Arrauneko handietako bat zara.

Hainbeste urtean erreferente asko egongo dira. Horri begira ez naiz egon sekula ere.

Oraindik ere deitzen al dizute beste entrenatzaileek laguntzera joateko neurriekin eta?

Bai. Aholku batzuk eman daitezke, baina entrenatzaile bakoitzari utzi egin behar zaio bere erabakiak hartzen.

Arantzaren bat ba al duzu atera gabe?

Ez dut uste. Denboraldi batzuetan gelditu izan zait zerbait gehiago egin genezakeen ustea. Beti gelditzen zaizkio zalan-zalak entrenatzaileari.

Zer gelditzen da duela 30 urteko Luxia hartatik?

Entrenatzaile bezala, uste dut bigunagoa naizela orain. Orduan, gogorra nintzen. Nire garaiko mutilak edo zaharagoak entrenatu nituen orduan, eta orain, askoz gazteagoak. Batzuk ia umeak bezalakoak ikusten ditut, eta, alde horretatik, bigundu egin naiz. Hala iruditzen zait, behintzat. Orain, arraunlariak hobeto kontrolatuak daude, analitika aldetik eta. Lehen, denentzat dena berdina zen, eta ezin zutenekin gogor jartzen nintzen.

“Harategiko **txuletekin** ez ditut arraunlari asko konbentzitu”

Arraunak lotu du Luxia Zumaiarekin. Baina beste kate batek ere uztartu ditu biak: lanbideak. “Negozioa” esaten dio berak. Bizimodu herrian egiteko aukera eman dio. Azken batean, esan daiteke dendagatik egin dela zumaia.

Lehen ere harakina al zinen?

Bai, lehendik ere bai. Baina denda irekitzeko aukera hemen izan nuen.

Zer urtetan izan zen?

1986an uste dut zela.

Noiz etorri zineten Zumaiara bizitzera?

Denda ireki eta bi urtera, 1988an. Umeak jaio eta gero.

Asko kostatu al zitzaizun Orio utzi eta Zumaiara etortzea?

Ez zitzaidan zailegia izan. Negozioa hemen zegoen, eta atzera-aurrera ibiltzen ez nembilen eroso. Hona etortzea erabaki genuen. Pena semeek eman zidaten, lagun giroa egiten hasita zeudelako Orioko ikastolan. Baina berehala hartu zioten martxa herriari.

Zenbat arraunlari konbentzitu dituzu harategiko haragiarekin arrauna ez uzteko edo Zumaiara etortzeko?

Txuletagatik ez dut uste izan denik. Euskal Herrian badugu mahaiaeren bueltan hitz egiteko ohitura, eta egia da halakoak asko egin ditugula, baina ez dut uste haragiak eragin handirik izan duenik arraunlarien erabaki horietan.

“Ilusioa egingo lidake **beste 30 urtez** Telmo Deun uretan ikusteak”

Denboraren joan bizian, Luxia iragana da dagoeneko herriko arraunean. Beste aro bat hasi da orain. 30 urtez dena ezagutu eta gero, ez da pertsona egokiagorik etorkizunari zer traza hartzen dion jakiteko.

Nolako geroa dauka arraunak herrian?

Ez dakit zer esan. Gazte gutxi joaten da arraunera. Guk geuk, akaso, ez dugu gai hori behar bezala landu, baina herriko gazte asko ez da ikusten arraunean. Pena da behin gertatu zitzaiguna: sekulako taldea genuen jubeniletan, baina hurrengo denboraldian arraunlari bakarrak segitu zuen, eta bigarrenean, denak utzita zeuden. Infantilekin eta kadeteekin lan handia egiten dugu, baina jubeniletara hel-tzen direnean, utzi egiten dute. Ez da Zumaia arazoa bakarrik, beste klubetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Ikusi besterik ez dago traineruetan 30 urte inguruko jendea dabilela, betikoak.

Nola konbentzitu daiteke gazte bat arraunean hasteko?

Lehenengo pausoa klubera eramatea litzateke. Lagunarteak eramatea da gakoa. Banaka-banaka joaten badira, nekez geldituko da bertan. Koadrilla osoak ezagutu izan ditut nik taldean, eta horixe behar da.



“TTAURTTAUPI ARRAUN KOLPEKA” DOKUMENTALEKO FOTOGRAMA

Gazteentzat ez al da kirol gogorre-gia?

Oso gogorra da, baina gogorrena da askatasun gutxi dagoela. Negutik hasi eta hurrengo urteko udazkena arte joan egin behar da, eta asteburuak ere hartuta egoten dira; udan, gainera, asteburuak lotuta edukitzea gehiegi da gaur eguneko gazteentzat.

Inoiz ez du trainerua zintzilikatu Zumaia.

Beste horrenbeste urtean ez zintzilikatzea eskatuko nuke nik. Egingo ditut ahaleginak urtero uretan ikusteko. Ilusioa egingo lidake beste 30 urtean trainerua uretan ikusteak.

Aldaketa sakona behar al du herriko arraunak?

Sakona ez. Lehenengo bidetik urte denezte iraun du. Gazteekin egin behar da lana, eta talde ona egokitzen denean, aukera hori baliatu. Baina arrauna orain dagoen bezala zaila da Zumaia bezala harrobia lantzen duen klub batentzat. Kanpoko fitxaketak egiten dituzten horientzat errazagoa da. Hala ere, politagoa da etxekoekin banderak irabaztea.

Zure ordezkoa etortzen denean, deitu egingo dizu, akaso, zure iritzia emateko eskatuz. Zer esango zenioke?

Bizi izan ditudan esperientziak kontatuko nizkioke. Gauzak nola egin ditudan esango nioke, baina gero, berak atera beharko lituzke ondorioak.

Nork jarri zizun Tejero ezizena?

Bueno, hori hona etorri nintzenean izan zen. Beti esan eta esan ari nintzaizen arraunlari: “Etzan gehiago! Bota atzea!”. Eta ez dakit zein izan zen, baina koadrilla hartako arraunlari batek hau esan zuen: “Honek Tejero ematen dik, hainbeste etzan beharrekina”.

Gogoan al duzu norbaiti botatako bronka handiren bat?

Lehen bastante botatzen nituen [barrezka]. Etxera ere bidali izan ditut arraunlari batzuk. Baina azken urteetan

ezin izan dut horretarako aukerarik izan; beti esan izan dut entrenatzaile batentzat onena dela arraunlari asko edukitzea, lana erraztu egiten duelako. Ikusten badute 13 bakarrik daudela, eta beti traineru barruan egongo direla, hazi egiten dira arraunlariak. Eduki ditut koadrilla oso onak, arraunlari askokoak, eta horiekin lana hobeto egiten da.

Etxera bidalitako horiek bueltatu al ziren gero arraunera?

Bai, bai, eta sekulako arraunlariak izan, gainera. ■



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua
Mugikorra: 636867812

Hego kalea, B3 (Estazioan)
Tel.: 9438651363
zumaia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Induristegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide ibilbidea, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



La Prima Vera
pizzeria

Aita Mari, 17. behea
tel. 943 247 011

ZINEMALDIAN TTAUP, TTAUP!

TESTUA: ENKO DORRONSORO
ARGAZKIAK: JUAN LUIS ROMATET

'Ttaup, ttaup! arraun kolpeka' dokumentala estreinatu du Eneko Dorronsorok Zinemaldian. Bere esperientziaren kronika egiteko eskatu diogu.



Zinemaldia. Uztail hasieran jakin nuen gure dokumentala Donostiako Zinemaldirako hautatua izan zela. Poza eman zidan. Lehen lan bat horrela aurkezteko aukera... Baina ezin omen nuen berria zabaldu, antolakuntzak egin behar baitzuen publiko hautatutako lanen zerrenda. Ni ixilik, beraz, nahiz eta ederki kostatu.

*Baleike*koek jakin zuten nonbaitetik. Eta hor jarri zuten imajinazioa martxan: argazki bat aterako diagu miniaturazko traineru batekin Principe zineen aurrean. “Ya, ta platanitoa jantzita, no-tejode!”. Argazkian beraiek irten behar ez zutenek... Lortu nuen, halere, ideia burutik kentzea. “Iraileko zenbakirako egingo diagu elkarrizketa zabal bat!” Baina Gorritik hartu zidan aurrea. *Arrija* dala-ta herria hankaz gora jarri ondoren zer gutxiago!

Hurrengo proposamena, urriko ale honetarako erreportaje bat egitea zen. Donostiako aurkezpenean argazkiak atara, nere sentsazioak kontatu bertatik bertara... Aurkezpena egiteko unean nola egon ni, ordea, *Baleike*koen pendiente? Nahikoa izango nuen neure buruarekin (eta hala izan nuen).

Zinemaldia igaro ondoren egitekotan utzi genuen elkarrizketa, beraz. Eta begira azkenean zertan gelditu den: “Zergatik ez dituk heuk idazten han bizitakoak heure kasa?”. Toma ya! Ta nik baiezkoa esan gainera. Argazkian miniaturazko traineruarekin ez naizela agertuko jakiteak kontsolatzen nau,



“TTAUP! TTAUP! ARRAUN KOLPEKA” DOKUMENTALEKO FOTOGRAFIAK

halere. Gainera, horrela ez naiz kazetariarekin haserretuko, nik esandakoak oker idatzi dituela-eta. Ze, 110 orduko grabaziotik 67 minutuko dokumental bat egiterakoan, erreza da gauzak testuingurutik atera eta gertatu zenaren irudi okerra ematea (eta hori gerta ez zedin izan da nere kezketako bat). Baina kazetariak elkarrizketa bat karaktere kopuru jakin batera murriztu behar duenean ere... Ai ama!

Komunikabideak. Zinemaldia erakusleihen bat da. Baina erakusleihen horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko oso lagungarri dira komunikabideak. Hori ere ikasi dut. Pentsa zenbat film dauden ikusgai astebeteko tarte motzean. Zergatik joango dira zurea ikustera?

Film bulgariar batez hitz egin zidan lagun batek; jende asko joan omen zen hura ikustera. Eta laguna zuzendariarekin izan zen. Hark esan zion jende asko joatearen arrazoi posibleetako bat bi esaldi soileko sinopsia aurkeztea izan zela. Sinopsia, testu laburra da zinemaldiko programan film bakoitzaren argazkiarekin batera doan esplikazio testua da. Eta hainbeste aukera badaude... Jendeak sinopsi motza irakurtzera jotzeak badu logika. Eta behin irakurrita... Zergatik ez filma ikustera joan?

Estrenorako zerbait ikusgarria egitea litzateke beste aukera. Orain dakidana jakin banu orain hilabete... *Telmo Deunen* sartuko ginen Urumean barrena Maria Cristina pareraino. Julia Robertsi gure "gondolan" paseotxo bat emateko gonbidapena egin eta... Orduan bai irtengo ginatkeela telebistan, Garate!

Fauna. Zer esango dizuet, ba... Handi xamar egin zitzaidan hasieran guzti hura. Iban Garate eta biok ginen zinemaldian izatekoak. Hura produktore gisan, eta ni zuzendari. Berak markatzen zizkidan: bateko elkarrizketa, hurrena egunkarikoekin zita, beste hark deituko dik gero... Argazkilarien aurrean posatzen ere ikasi dut ia-ia. Baina hurrengo urtean hobetzeko ere zerbait utzi beharra zegoen.

Elkarren arrimoan errazago izan da guztia. Baita jendaurre-

ko aurkezpenak ere: "Garate, hi hasi hai, etzaik eta mingaina tratraaabaatzen". Bueno, eta gero Oihana zegoen. Lehen egunean trenez irtestar nintzela deitu zidan: "Kaixo, Oihana dut izena". Bera izan da antolakuntzak gure kargu jarri duen pertsona. Akreditazioak Kursaalera dituzue. Filmen bat ikusteko sarrerak behar badituzue, hau eta beste egin, eta listo. Gaueko inaugurazio koktelarako gonbidapenak harrerako leihatilan daukazue. Flipa! Easoko estazioan aterratu, eta Kursaal aldera hurbilduz batera, hango stand, besteko azafata, 3x10 metroko kartelak... Eta ni apurtutako motxila zaharra bizkarrean hartuta. Portal bateko kristalean begiratu, eta, bueno, sudadera kaputxaduna ez zen daukadan ziztrinena. Baina... "Ezingo nauk, ba, horrela joan gero Bataplaneko koktelera!".

Hartu genituen akreditazioak, baina ez nintzen lepotik zintzilik eramatera iritsi zinemaldiak iraun zuen denboran. Eta kurioa da akreditazioena. Parte Zaharreko tabernetan pintxo jaten ere haiek lepotik dituztela ibiltzen baitira batzuk. Izan ere, akreditazio desberdinak daude. Baina gurekin ez geneukan tabernetan deskonturik.

Aurkezpena. Egurditik aurrera hasi nintzen larritzen. Aurrez Olaziregirekin izan ginen, Zinemaldiko zuzendariak egun bakoitzean filma estreinatzen doazenei halako harre-ratxo bat egiten baitie Kursaalera. Koxtape zalea dela aitortu zigun, baina ez zen hori izan larritu ninduen. Proiekzioaren aurretik ikusleei hitz batzuk esatea tokatzen zitzaidan. "Er-tengo dek zerbait!", pentsatu nuen hasieran. "Bueno, agian hobe zerbait idaztea, puntu batzuk behinpein... Bera okerrago! eh, Garate? Lehen esan bezela, hi hasi, hiri etzaik eta mingaina tratraaaa...".

Arraunlariak orain datoz! esan zuen norbaitek. Zuk eza-gutzen al dituzu, ba? Ez, baina hainbeste jende gorritz jan-tzita... Hala etorri baitziren, estropadatik zuzenean. Argazkia ere atera ziguten. "Patata! Patata!" esan beharrean, "Ixku! Ixku!". Gustoura zetozen play-offa irabazita. Eta polita izan



"Telmo Deunen sartuko ginen Urumean barrena Maria Cristina pareraino. Julia Robertsi gure 'gondolan' paseotxo bat emateko gonbidapena egin eta..."



► ZUMAIAN ERE BAI

Zumaian bi emanaldi egin ziren eta jendea oso gustura gelditu zen dokumentalarekin. Arraun Elkarteko kideak ere ez ziren falta.

zen; lagunak, etxeokak... Malkoren bat ere erori zela uste dut. Baina neri ez, eh!

Egia esan hurrengo goizean hasi nintzen estreno eguna baloratzen. Forki zumaiairak esnatu ninduen irratitik deika, elkarriketa bat egin nahi zidatela-eta. Zinemaldiko egunkarian orrialde osoa eskaini zigutela esan zidan. Eta hori Julia Robertsekin gondolan paseatu gabel!

Trenez joan nintzen berriz. Eta bidean, bezperako estre-noaz pentsatzeko astia hartu nuen.

Tratratra... Trabatu ez banintz... Uste det Kontxakoa esan nuela. Neretzat zinemaldian egotea Kontxarako klasifikatzea bezela zela. Polita gelditzen da, ezta? Ba, apunta Eneko! Zumaiaiko aurkezpenean esateko (ez gatzibek eta ideaz sobrante). Eskerrak eta halakoak berez erteten dira, eta baten batez ahaztuz gero, horretarako daude dokumentalaren bukaerako kredituak. Hainbestetan errepasatutako kredituak... eta han ere seguru bat baino gehiago falta direla. Beraz, ez larritu! Beti sartzen da hanka eskerrekin.

Dokumentalerako grabatu nuen jendea badakit ez zela haserretuko bat aipatzekotan Luxia aipatu izan banu. Ez dakit zenbat urte eman dituen taldean, eta berak ere ez badaki emazteari galdetu! Ondo kontatuta edukiko ditu. Erregalo polita izan zuen despedidarako, mutilek play-offa gaindituta. Eta gehitxo izango zenez dokumentalaren aurretik ya emozionatzen hastea... Bere aipamena Zumaiairako uztea erabaki nuen. Eta ez dit, ba, oporretara ospa egin! Diskurtsoa bariatu beharko dut, beraz. Baina idatzita, behintzat, gelditu dadila.

Bueno, eta lagunekin ez nuen kunplitu. Ezta etxeokoen ere. Baina horrek hala behar du, ezta?

Zinemalditik bueltan, etxera. Trenean noski. 10eko bonoan pare bat biaje sobratu zaizkit. Motxila esperientziez beteta ekarri dut. Berriak. Bai esperientziak, eta baita motxila ere. Oihanaren deiaren ondoren, erostea erabaki nuen. Eta jertse bat. Julia Roberts parean tokatzen bazen ere.

Balorazioa positiboa izan da. Hiru pase eman genituen; bi egunetan sarrerak agortu ziren, eta hirugarrenean ordutegi eskasari bota genion errua. Proiektzio aurretik egindako aurkezpenak... Hirugarrenean profesionala ematen nuen! Dokumentala ikusi zutenak gustura irten ziren zinetik (edo hala esan ziguten, behintzat). Antolakuntza eta atentzioa primera-koak. Kokteleko kroketak goxoak.

Zerbait kritikatzekotan, kritika falta kritikatu nuke. Mediora dedikatzen den jendearen arreta. Euskal Herrian egiten diren lanek zinemaldian duten presentzia sinbolikoa izatea nahi ez badugu, azter ditzatela, eta esan dezatela (beraien us-tez) balio ote duten. Oso ondo etorriko litzaiguke.

Nik nere aldetik egin dut autokritika, eta apuntatu ditut hurrengo urterako zereginak. Argazkilarien aurrean posatzen ikastea, hasteko. Eta estrenorako zerbait ikusgarria egitea. Bulgariarraren gisan, lerro bakarreko sinopsia aurkeztuko dut, badaezpada, "zerbait ikusgarria" hori hain ikusgarri ir-tengo ez balitz ere. Beste burutazio bat ere izan dut, Kur-saaleko auditorioa gainezka zegoen batean. Modan dagoen zuzendari baten dokumentala ikusteko zain geunden, eta... Konplot txiki bat eginez TTAUP, TTAUP! jarriko banie? Proiek-zionista sobornatuko dut hurrengo Zinemaldian.

Orain urtebete daukat dena prestatzeko. Bueno eta aurkez-tuko dudana egiteko, baina hori da gutxienekoa.

Portzierto, zeinena izan da aurrean alfonbra beltza jartzearen ideia? Kita, kita, Zumaian gorria, eh!

Posdata ta guzti. Ez dakit nola deitu idatzi dedan honi... Baina bueno, idatzi dedan hau Zumaian dokumentala aurkez-tu baino pare bat egun lehenago egin det. Dagoeneko ez da sarrerarik gelditzen (bai badakit gratis izanda pintxorik txarre-nen platera ere hutsik gelditzen dela inaugurazioetan). Baina zer esango det ba, ilusioa egiten dit. Proiektuarekin hastean haxe zen nere helburua, Zumaian erakusteko moduko zer-bait egitea. Eta hemen dago. Kontxarako klasifikatzea ederra izango da, baina herriko bandera irabaztea ere... ■

web gunea: www.ttaup.com

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353



PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788

Erribera 1 behe



Santiago auzoa, 4

Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuleta parrillan
Julio Beobide ibiltokia

Tel. 943861392



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Urola 2000, s.l.

Aroztegia

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberitzea
- *Enbarkazio konponketak
- *Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
- *Armairu enpatatuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943863532 Tel.: 943861631



- plater konbinatuak
- ogitarteak
- oilasko erreak

Urra Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



Maithe Urra

Oinetako eta
erropa
konponketak
Produktu eta
material
ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740



Alai auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behe • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Egumeko menua-Asteburuko
menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errozioak-Afariak
Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349

TXALAPARTA

OPARIK

Angels Sorra, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

UDABERRIA ORANEN: BURUHAUSTEAK GASAREN ITURRIETAN

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: JON IÑAKI ISPIZUA

2010eko otsailean lan eskaintza erakargarria jaso zuen Jon Iñaki Ispizuak, *Jonik*: Oran (Algeria) hirian eraikitzen ari ziren hotel bat martxan jartzearen zuzendaritza teknikoaz arduratuko zen. “Ilusioz hartu

nuen, banekien eta dena ondo joanez gero, han igaroko nituen hiru hilabeteetan gehiago ikasiko nuela hemen hiru urtean baino”. Afrikako esperientzia ez zen izan, ordea, espero bezain positiboa.



Test izeneko ingeniari-tza enpresan egiten du lan Jonik. “Gure departamentua instalazioak martxan jartzeaz eta era guztietako auditoriak egiteaz arduratzen da”.

Gas likidotuaren biltzarra hartuko zuen Oranek 2010eko apirilean, eta horren inguruan biltzar jauregia, erakusketa jauregia eta hotela eraikiko ziren. “Gas likidotuaren ekoizle handienetakoa da Algeria eta biltzar hori oso garrantzitsua zen haientzat”. Mailetak ilusioz beteta, Algeriarako bidea hartu zuen Jonik.

Lehen inpresioek, baina, pixka bat kikildu zuten: “Beste erritmo bat dute Algerian. Herrialdean sartzea bera ere ez da erraza: bisatua eskatzen dizute eta hura lortzeko trami-teak ez dira errazak”. Milioi bat inguru biztanlerekin, Al-geriako bigarren hiria da Oran. “Nahiz eta Algeriako beste leku batzuek bezala sekulako potentziala duen, erabat utzita dago. Frantziaren kolonia zen garaiko eraikinak badaude: uda-letxea, opera, jauregi batzuk..., baina frantziarrak joan zirenetik ez dira erabiltzen eta ia denak itxita daude. Biltzar horretarako eraikitako erakusketa zentroa eta Sheraton hotela dira Oraneko eraikin modernoak. Erre-pide sistema ere kaxkarra da. Trafikoa, hori bai dela kaotikoa! Esan ziguten Oranen bost semaforo besterik ez daudela, eta milioi bat laguneko hiria da!”.

“Han izandako denboran ez nuen aurpegi txarrik ikusi; justu kontrakoa”

Langile gehienak obraren ondoan bizi ziren; Joni, berriz, enpresak alokatutako etxe batean bizi zen beste bi ingeniari-ekin. “Etxea narras xamarra zen. Telebista apurtuta zegoen eta egun batzuetan urik ez genuen izaten. Baina, beno, bane-kien hemen ditugun erosotasunik ez nituela izango. Obratik hurbil zegoen eta hirigunetik urruti. Umeak lasai egoten ziren etxepean jolasean eta haien oihuak eta barreak entzuteak poza ematen zigun”.

Nahiz eta beldur pixka bat izan zuen hasieran, herritarrekin oso harreman ona izan zuten. “Gurekin oso ondo por-tatu ziren. Han izandako denboran ez nuen aurpegi txarrik ikusi; justu kontrakoa”. Hemengo eta hango kulturen arteko desberdintasunez jabetzeko aukera ere izan du. “Handik joa-teko egun gutxi falta zirela lagun baten adiskidearen etxera gonbidatu gintuzten. Alaba jaio eta gero festa txiki bat ospa-tu zuten. Haren emazteak kus-kusa prestatu zuen, han jan genuen onena, baina beraien ohiturak direla eta, emaztea ez genuen ezagutzerik izan. Amaieran opari batzuk eman ge-nizkien, baina gure aurrean ez zituzten ireki; gorde egin zi-tuzten. Ez zitzairen inporta zer erregalatu genien edo zenbat gastatu genuen; oparia egitea bera eskertzen zuten”.

Algerian igarotako denboran apenas izan zuten Oranetik irteteko aukera: “Justu-justu ondoko herrietara joan ginen. Astean bi jaiegun genituen, baina hiruretako batek obran guardian egon behar zuenez, ezin ginen inora elkarrekin joan; horrek asko mugatu gintuen”. Beste langile batzuekin elkartu eta hirigunera joaten ziren jaiegunetan. “Hoteletako diskoteketara joaten ginen; haietan baino ez zituzten zerbi-tzen zerbeza edota alkohol-dun edariak. Bizpahiru taberna ere

▼ KONBENTZIO ZENTROA

Mohamed Benahmed konbentzio zentroa. Hotela, biltzar eta erakusketa jauregiak ziren guk martxan jarri beharrekoak, eta Orango biztanleek dituzten etxeetatik oso desberdinak dira eraikinak.



ezagutu nituen Oranen. Hiriguneko kale ilunetan alkoholdun edariak ere saltzen zituzten; zabor poltsetan sartzen zituzten jendeak ikus ez zitzan”.

Langabezia da Oraneko (eta Algeriako) biztanleriak pairatzen duen arazo larrienetakoa. “Algeria ez dago turismorako prestatuta eta apenas du industriadik. Oranen, adibidez, badira unibertsitatea eta eskola onak. Baina gazteek ez dute irtenbiderik eta Algeriatik irteteko desatzen daude. Lanik ez dago han eta gizonak, heldu eta gazte, kaxa batzuetan eserita egoten dira kalean tertulian. Lan baldintzak ere oso txarrak dira. Mediku batek 400 euro kobratzen ditu hilean. Han ezagutu nuen lagun batek, enpresa bateko logistikako arduradun



► PARRILLA

Instalatzailerekin parrilla obra eremuan. Obra geratu zutenean, denbora ahal genuen moduan aprobetxatzen saiatu ginen. Lankideak ezagutzeko modu bikaina da parrilla!

► ARTALDEA

Ume batek gidatutako artaldeak janari bila. Txakurrak ere tristura aurpegia du! Umeak kalean ibiltzen dira gau eta egun futbolean. Argazkikoak ez du, ordea, horrenbesteko zorterik.



▲ FUTBOLA

Etxe azpiko lagun bat. Ezinbestekoa da irribarre egitea umeak baloi zulatu batekin zer ongi pasatzen duten ikustean. Zaharrak eta gazteak, futbol jarraitzaile sutsuak dira. Baten batek Real Sociedad ezagutzen omen zuen!

► LANGILEEN ETXEAK

Langileen etxeak eta gure bulegoak hoteleko goi solairutik ikusita. Geratu zuten arte, obrek ez zuten etenik. Langileek obran bertan egiten zuten lan, jan eta lo. Urik gabe geratzen ginenean, Pentsa nolako kiratsa sortzen zen han, 800 pertsonarekin!



“Kontratatu gintuen enpresa ez zuen kobratzen; lanekin ez jarraitzea erabaki genuen”

izanda, 200 euro kobratuko zituen hilean, eta gustura zegoen hori jasota”.

Emakumezkoen arazoak are larriagoak dira, bere ustetan: “Gizonezkoak lana lortzeko arazoak badituzte, zer esanik ez emakumezkoek. Ikasteko eskubidea eta aukerak dituzte, baina oso zaila dute lana lortzea”. Burkaren inguruko polemika piztu da azken urteetan Europan. Horren erabilera ez debekatzearen aldekoa da Joni: “Burka jantzitako emakumeak ikusi ditut, baina baita mendebaldeko erara jantzitakoak ere. Nahi dutenek erabiltzen dute burka, bere kultura hura delako. Orduan, zergatik debekatu Mendebaldean?”.

Proiektua bertan behera

Egoera ez zen onena erakusketa-zentroko obretan eta arazoak egunetik egunera areagotu egiten ziren. Gas likidotuaren biltzarra apirilean zen egitekoa; arazoak, baina, askoz lehenago hasi ziren. “Hasteko, obraren aurrekontua 500 milioi eurotik 800 milioi eurora igo zen. Horren inguruan kexak agertu ziren bertako egunkari batzuetan: tamaina horretako obra Espainiako enpresa bati eman izana salatzen zuten. Obretan atzerapen handiak zeudenez, biltzar eta erakusketa jauregiak lehenetsi zituzten hotelaren aurretik. Ondorioz, martxotik apirilaren erdira arte guk lan egiten genuen hotelaren obra geldirik egon zen”.

Gas likidotuaren biltzarrean herrialde ekoizleeko ministroak eta ordezkariak egon ziren. “Biltzarrak iraun zuen bost egunetan Oran zeharo aldatu zen. Polizia zegoen izkina guztietan: erosketak miatzen zizkiguten, obrako langileak ginela ziurtatzen zuen txartela erakutsi behar genien behin eta berriro... Bost egun horietan polizi estatu batean bizi izan ginen”.

Biltzarra amaitu ondoren ohiko kaosa itzuli zen Oranera eta arazoak ere okerrera egin zuten. “Obrak sustatzen zituen Sonotrac (gasa ekoizten duen enpresa eta Algeriako handiena) enpresaren goi karguetan aldaketak izan ziren eta trapu zikinak atera ziren. Agintari berriek ez zuten obra honen inguruko ezer jakin nahi; ez zituzten fakturak ordaintzen eta ondorioz, gu kontratatu gintuen enpresa eraikitzaileak ere ez zuen kobratzen. Egoera horretan, lanekin ez jarraitzea erabaki genuen”.

Arazoak konpontzen ez zirela ikusita, langileak etxera itzuli ziren. “Egoera horretan albiste pozgarriena zen”. Frustrazioa nabari zaio Joniri. “Soldata kobratzen nuen, baina egin dudana egiteko, nahiago nuen etxean geratu. Ikasteko asmoarekin joan nintzen hara eta zerbait ikasi badut, minimoa izan da; lan aldetik ez dut ezer onik atera. Egonaldiko gauza on bakarra han egin ditudan lagunak eta beste kultura bat ezagutzea izan dira”. ■



▲ ▼ AUZO ZAHARRA

Orango auzo zaharra. Kanpoko herri asko pasa dira Orandik, eta haiek eraikitako monumentuak ikusteko eginiko eskurtsio batean ezagutu genuen hiriko alderik xumeena.





◀ TRAFIKOA

Semaforoak Oranen. Gutxi daude eta guztiak honek bezala funtzionatzen badute... Errepideetako zulo, gainontzeko sasi gidari eta polizi artean, ez da batere erraza Orango ohituretara egokitzea.

▶ LANTOKIAN

Makina artean lanean. Egun gutxi pasa genituen lanean, baina egin beharrekoak ederki egin genituen. Ez zen gure esku egon obraren erritmoa markatzea. Lastima.



▼ PORTUA

Orango portuaren ikuspegia Gurutze Santua tontorretik. Benetan hiria zer handia den ikusteko ikuspegi bikaina dago frantsesek punturik altu eta estrategikoenean eraikitako eliza honetatik. Oranek 1.000.000 biztanle ditu.





Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak



Etkez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazioa

FISIOTERAPIA

Maidar Olazabal

**KIRURGIA OROKORRA
LISERI-APARATOA**

Juan Ignacio Alberdi

AKUPUNTURA

Eduardo Troncoso
Libe Ilarramendi

Aita Mari poligonoa, 3, blokea
Tel. 943 86 16 91
Zumaia

URRIA-AZAROA

DEIALDIK

ASTE BURU MIKOLOGIKOA:
urriaren 15etik 17era.
BIGARREN ESKUKO
AZOKA: Urriaren 23an.
Azaroan GAZTEGUNEAN:
ASTE MULTIKUTURALA
Azaroaren 15etik 22ra Xixili
Egunaren aitzakian,
MUSIKA ASTEA

IKASTAROK

PINTURA TAILERRA: Astelehenean
eta asteazkenetan 18:30etik
20:00etara / astearte eta
ostegunetan 15:00etatik 16:30era.
Urriaren 4tik aurrera.
K.Z. Gunea: Internet ikastaroak.
Informazioa: 943 86 28 66.
KUTXA IKASGELAK: Sukaldaritza eta
Golf. Informazioa: www.kutxa.net
ARETOKO DANTZAK: Marisa
Merinoren Dantza Eskola.
Torreberrin, larunbatetan
15:00etatik aurrera.

URRIA

Larunbata, 9

16:30ean "Zuloaga museoa eta
Zumaia" bisita gidatua.

Igandea, 10

9:00etan Deba Zumaia Trekking-a.
10:00etatik 15:00etara, LVII. Elkarleen
arteko Jaurtiketako Arrantza
Lehiaketa.
19:30ean komentuan, kontzertua:
CORAL POLIFÓNICA DE
MANCHA REAL (Jaen).

Osteguna, 14

20:00etan Forondan: Ollarro Eguna
2010eko argazki rallyko sari
banaketa eta proiektzioa

Ostirala, 15

22:00etan Aita Mari aretoan
AGERRE taldearen "Doltza"
antzezlan

Larunbata, 16

10:00etan Irteera Geologikoa
Algorritik

Igandea, 17

11:30ean Zumaia Deba Zumaia
txalupa irteera

12:00etan Aita Mari aretoan
TXALO taldearen haur antzerkia
"ALI"

Osteguna, 21:

21:45ean Aita Marin
zine forum: "NACIDAS PARA
SUFRIR".

Larunbata, 23

16:00etan Flysch-aren ibilbide osoa
Mutriku, Deba, Zumaia.

Igandea, 24

10:00etan Zumaia Deba trekking-a

Igandea, 31

11:30ean Zumaia Deba Zumaia
txalupa irteera

AZAROA

Astelehena, 1

19:00etan Parrokian Tolosako
Abesbatza topaketen
baitako kontzertua: Kiev-eko
RENAISSANCE abesbatza.

Osteguna, 4

21:45ean Aita Marin
zine forum: "TWO LOVERS".

Ostirala, 5

22:00etan Aita Marin, antzerkia
"ERRAUTSAK"

Larunbata, 6

10:00etan Irteera Geologikoa
Algorritik

Igandea, 7

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia.

Ostirala, 12

19:00etan Algorri Interpretazio

Zentroan, "Junta de Salvamento
15 de Noviembre" liburuen
aurkezpen ekitaldia.

Larunbata, 13

10:00etan Irteera Geologikoa
Algorritik

16:30etan "Zuloaga museoa eta
Zumaia" bisita gidatua

Azaroak 17 eta/edo 18

18:30ean "Xixili eguneko"
entzunaldiak

Osteguna, 18

21:45ean Aita Marin
zine forum: "SOUL KITCHEN".
Ostirala, 19:

19:00etan Maria eta Jose aretoan,
Musika Eskolaren Xixili eguneko
Jaialdia

22:00etan Maria eta Jose aretoan,
Udal Musika Bandaren Xixili
eguneko Kontzertua

Larunbata, 20

20:00etan Parrokian San Pedro
Abesbatzaren kontzertua "Luis
Urteaga Gogoratzu"

Osteguna, 25

19:30ean Forondan, hitzaldia "EL
DOCTOR MARAÑON EN
ZUMAIA"

Ostirala, 26

22:00etan Aita Marin, antzerkia
"GEZURAREN PRINTZEA"



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako

era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



GAIZTOAREN ZALDIA

Gaiztoa tiroka atera zen banketxetik.

Airera pare bat tiro egin, eta diruz betetako zakua zaldian lotzera joan zen laster batean.

Bi zaldi zeuden lotuta banketxe kanpoan: bat bere betiko zaldi beltza zen, zaldi urduria, azkarra zalantzarik gabe. Ondoan zaldi zuri bat zegoen, itxura lasaiarekin, motela seguru asko. Gaiztoa bere zaldi beltzera zuzendu zen azkar, baina azken unean zalantza egin zuen.

“Zaldi motelena hartzen dut beti”, pentsatu zuen bere baitan, “eta nazkatuta nago. Oraingoan ez naute harrapatuko”.

Bere zaldia hartu beharrean zaldi zuria hartu zuen, bere zortea aldatu asmoz. Zaldi gainera igo orduko ziztu bizian atera ziren biak, bere zaldi beltzak inoiz egingo ez lukeen moduko lasterraldia eginez.

—Aupa! —oihukatu zuen gaiztoak pozik zaldi gainean—. Oraingoan ez naute harrapatuko!

Eta ez zuten harrapatu, amildegi batetik behera erori baitzen.

Gaiztoa ez zegoen ohituta zaldi azkarretan ibiltzera.



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



zumartian

Zumaiako merkataritza indarberritzeko plataforma

Nork osatzen du plataforma?

Plataforma honetako partaide dira hirugarren sektoreko enpresa guztiak eta Zumaian jarduerak kudeatzen dituzten udal teknikari guztiak.

Zer ekintza gauzatuko dira?

Zumaiari onurak ekarriko dizkion sinergiak lortuko dira, merkataritzan, turismoan, kulturean, euskaran, kirolean eta ingurumen arloan egingo diren ekintzen bidez.

Zein da estrategia?

Merkataritza indarberritzeko estrategiak, barrura eta kanpora begira ere sumatuko direnak, bai hirigintza eta azpiegiturei dagokienez, eta baita sektorearen dinamizazio eta sustapen mailan ere.

Eskolara itzultzea

Ordaindu 3 hilabetetan interesik gabe

Irailaren 1etik urriaren 31ra

50€ / 20€ / 10€ / 5€ BALE SARIAK
eta ANTZERKIRAKO GONBIDAPEN BIKOITZAK



Saria datafonotik aterako da.

Datafonoko tiketarekin ordaindu elkarteko dendetan,
erosketa berriarekin bere prezioa sariaren
kantitate berdina edo handiagoa izanik.

Balearen iraungitze-data: 2010-11-30.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LEHEN: ROOMATEY
argazkiak

goiz argazkiak

irekiera

Urriak 13, ASTEAZKENA
19etan
Juan Belmonte kalea, 4 behea

inauguración

MIÉRCOLES, 13 de Octubre
a las 19h
C/Juan Belmonte, 4 bajo

Gaizane Mendizabal
Juan Belmonte, 4 behea
20750 Zumaiola
943 860 971

